



## ❖ PLENOA

### Ura eta zaborraren zergak

Gaur plenoa egingo du Udalak arratsaldeko 18:00etan hasita. Bertan aztertuko da, besteak beste, 2006ri dagokion Ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena. Ordenantza horrek ura eta zaborraren zergak erregulatzen ditu. Akarregiko lurzoru bati buruzko azterketaren eta kreditu aldaketa batzuen inguruan ere hitz egingo dute. ||

## ◆ BOLEIBOLA - Lehen Maila

# Mutilen taldeak larunbatean hasiko du liga Bilboko Rekalderen kontra

Partidua arratsaldeko 18:00etan dute, Kiroldegian. EHU-UPV Hernanik hainbat baja sufritu ditu plantilan, baina jokalaria eta entrenatzaile berriak ere izango dituzte aurten.

DATORREN larunbatean, hilak 15, hasiko dute Euskadiko lehen mailako liga eta denboraldia EHU-UPV Hernanik taldeko kideek. Liga, berez, aurreko astean hasi bazen ere, Hernaniri deskantsua egitea egokitu zitzaion eta asteburu honetan Bilboko Rekalde Boleibol taldearen kontra jokatu dute.

### Bajak eta jokalaria berriak aurten

Iaz Hernanin jokatu zuten bi jokalarik, Lauri Matias-ek eta Agustin Olanok (Hernaniko kapitaina izan da azken urtetan), ez dute aurten jokatu. Boleiboleko arduradunen hitzetan baja garrantzitsuak dira bi jokalaria hauenak, pasatzaile postuetan jokatzen baitzuten eta "postu horiek oso garrantzitsuak dira boleibol talde batean", diote.

Hala ere, postu horiek betetzeko eta taldea indartzeko hainbat jokalaria gehitu zaizkie, batez ere erasora begira. Bulgariatik etorritako Alexandar Metodiev jokalaria izango da aurten Hernanin alde batetik, eta jubenil mailatik nagusietara igotako Sergio Jara eta Iban Almendro besteak. Boleiboleko arduradunek

Aurten, Bulgariatik etorritako Alexandar Metodiev izango da alde batetik eta jubeniletatik igotako Sergio Jara eta Iban Almendro, besteak.



Eraserako postuak indartu ditu aurten EHU-UPV Hernanik.

esan dute jubeniletatik jokalaria batzuek aukera izango dutela noizbehinka goiko mailetan jokatzeke, modu horretan nagusien mailari "neurria hartu" ahal izango diote jokalaria hauek.

### Entrenatzaile berria

Baina nobedadeak ez dira soilik jokalarien artean izango. Aurten EHU-UPV Hernanik entrenatzaile berria izango du, Nicolas Petersen argentinarra. Entrenatzailea "ilusio eta

## 2005-2006 denboraldirako jokalaria

Hamabi jokalarik osatzen dute oraingoz UPV-EHU Hernaniko plantila. Baina taldeko arduradunek adierazi dute zerrenda ez dagoela itxita eta denbora dagoela urtarrila arte taldea osatzen joateko.

### Jokalaria:

Iñigo Aizpurua, Tai Yang Alvarez, Jon Arca, Imanol Egaña, Borja Martin, Iñigo Martin, Alai Zubimendi, Iban Uzkudun, Alexandar Metodiev, Fermin Almandoz, Sergio Jara eta Iban Almendro.

gogoz" hasi dela bere lanean adierazi dute boleibol taldeak eta uste dute argentinarraren jardunarekin emaitza onak lortuko dituztela denboraldi honetan.

### Larunbateko partidua

Rekalderen kontrako partidua ez dute erraza izango, kontuan izanda lehenengo partidua dela; gainera Rekalde ligako lehen partidua irabazita dator Hernanira.

Honela dioja liga: Sapuherri 2 puntu; UPV Bizkaia 2; Rekalde 2; Berezi 1; Galdakao 1; eta Astillero 1. Punturik gabe oraingoz: Corrales, Hernanik, Universidad de la Rioja, Santanderina eta Sestao. ||

## ❖ PARROKIAK

### Bihar gazte taldeen bilerak hasiko dira parroketan

Bihar, hilak 14, 15 urtetik gorako gazte taldeen bilerak hasiko dira parroketan. 19:30etan egin dute zita Elkano kaleko egoitzan. Bestalde, igandean famili giroko eukaristia izango da 12:30etan San Joan parrokiaren, katekesiko kurtsoari hasiera emateko. ||

## ❖ OLIO BILTZEA

### Gaur olio biltzen ariko dira Urbieta kalean

Gaur olio eta gai bereziak biltzen ariko dira Urbieta kalean. Hilabetero bi ostegunetan egiten dute bilketa eta arratsaldeko 16:00etatik 19:30ak bitartean izango dira bertan. ||

## ❖ GAZTE TXOKOA

### Bihar, sex-drog informazio puntua

Bihar sex-drog informazio puntua izango da Gazte Txokoan. Bestalde, hilaren 21ean egingo den graffitti tailerrean parte hartu nahi duenak bihar du azken eguna apuntatzeko, inskripzioak 4 euro balio ditu eta kopurua mugatua da. ||

## Amegar

Etxe Tresnak

Alzariak

Txirrita Kalea 15 - Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03 - Izpizua 27

## ATXIKI Taberna

Eguneko menuak  
Plater konbinatuak  
Bokatak

**Larunbat eguerditan ere zabalik**

bokadiloak  
plater konbinatuak

ATXIKI taberna - Hernaniko Kiroldegia  
☎ 943 33 1 660

tripontzi

taberna

**Egunero Menuak**

**8,50 €**

Kardaberaz, 11  
tf: 943555724

TELEFONAK: Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 DYA: 943 464622  
Autobusak: 943 556662 Anbulatorioa: 943 006666 Jokalari anonimoak: 943 331103  
Alkoholiko anonimoak: 943 331103 FARMAZIAK Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 - 943 552941 Gaez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Eguraldi euritsua egingo du. Zeruia lainoz estalita izango da egun guztian eta euria maiz botako du. Temperatura maximoak 18°C azpitik ibiliko dira.  
**BIHAR** Ostiralean eguraldi nahasia izango da. Goizean alertzen joango da eta egunaren bukaeran lainoak areagotzen joango dira. Temperaturek gora egingo dute.

## UDALA

# Rekondok dio Akarregiko lurak salduko dituztela "urbanizazio hobekuntzarako inbertsioei aurre egiteko"

Hernaniko alkateak Bildu Hernanik egindako kritikei erantzun die prentsara bidalitako ohar batean.

JOXAN Rekondo Alkateak, Udal Ogasuneko arduradun bezala, ohar bat bidali du Hernaniko Kronikara. Bertan, Akarregiko poligonoko udal lur batzuk salmentan jarri direla-eta BHek egindako kritikei erantzuten die.

### Urbanizazio hobekuntzarako inbertsioentzat

Rekondoren hitzetan Udalak salgai jarri du Akarregin industrial bezala kalifikatuta dituen lurak "urbanizazio-hobekuntzari lotutako inbertsioei aurre egin ahal izateko". Adibide bat ere aipatzen du Udal arduradunak, "Olaeta plazako urbanizazioa hobetzeko baliabideak lortzeko" balio-ko duela esaten baitu. Rekondoren iritzitan Lurzoru-ondaren Publikoaren Legeak udal lurzorua saltzeko orduan "aurreikusten duen helburuetako bat" da herriko eremu bat "urbanizatzea eta auzo baten

bizi-baldintzak duintzea".

Horren arira Alkateak bere oharrean dioenez: "Ez gara ari, BHK dioen moduan, udal ondarea xahutzen, lurzoru-ondarearekin berarekin zerikusia duen erabilera bat ematen baizik, bistan denez, plaza publiko bat lurzoru-ondarearen zatia baita" dio.

### Osiñagako zerrategia

Akarregiko lurretan Osiñagako zerrategia jartzearen inguruan, prentsa-oharrean Alkateak adierazten du BHri "ahaztu" egin zaiola "zerrategi-jarduera erabat legezkoa

"Herri eremua urbanizatzea da, hain zuzen, Lurzoru-ondare Publikoaren Legeak udal lurzorua saltzeko aurreikusten duen helburuetako bat"

dela, eta bat datorrela orain arte auzitegiek azaldu dituzten eskakizunekin", dio.

Leku desegokiak dau den enpresak Akarregin jartze-ari buruz, Alkateak erantzun du Arau Subsidiarioetan proposatu dutela enpresak Kaxkotik ateratzea (Florida jartzen du adibide bezala) eta dioenez: "BHk ahaztu egin du bera dela orain arte aurka agertu den talde politiko bakarra".

### Etxebizitzak

Bukatzeo Rekondok dioenez "BHri ahoa hitzez betetzen zaio etxebizitza politika aurrerakoiaz hitz egiten duenean, nahiz eta gobernuan egon diren hamarkadetan ez duten etxebizitza babestu sustapen serio bakar bat ere bultzatu". Alkatearen ustez "babes ofizialeko etxebizitza garapen handi guztiak, gaur egun udal gobernuari eusten dioten alderdien ekimenez bultzatu dira".

## FUTBOLA - Gorengo maila

# Hernanik 3 eta 0 galdu zuen atzo Real Unionen kontra jokatutako partidua

HERNANIKO mutilen aurreneko taldeak 3 eta 0 galdu zuen atzo Real Unionen kontra jokatutako partidua. Jon Loran, taldeko arduradunetako batek, adierazitakoaren arabera Hernanik izandako 3 des-

pistetatik etorri ziren Real Uninek hiru golak: bi aurreneko zatian eta hirugarrena bigarren zatian.

Despisteak despiste, Hernanik maila polita erakutsi zuen atzo eta piskanaka eki-

poa sendotzen ari dela erakutsi dute, asteburuan Trintxerperen kontrako partiduan erakutsi zuen bezala.

Hurrengo partidua Zubipen jokatuko dute Zarautzen kontra, larunbatean.

**Hernanik kronika**  
943 33 08 99

350 bazkideei esker, Hernanik egunero zure kioskoan euskaraz  
**Mila esker!**

**Bazkide egin nahi izan ezker txartela bete edo Kronikara deitu.**

Txartela uzteko:  
Dobera (Larramendi 11); Kronika (Larramendi 11);  
Konde kioskoa (Urbieta); Zinko-enea kioskoa;  
Iruretagoiena denda (Kale Nagusia);  
Dorronsoro okindegia (Lizeaga kalea);  
Sebas liburu-denda (Karmelo Labaka); eta  
Pana okindegia (Kardaberaz kalea).

**Bazkide egiteko txartela**

**Bazkidearen datuak:**  
Izen abizenak: .....  
NAN zenbakia: ..... Telefonoa: .....  
Helbidea: .....  
Posta Kodea: ..... Herria: .....

**Bazkide Kuota:**  
 30€ Urteko kuota  
 Beste kopuru bat: .....€

**Ordainketa Datuak:**  
 Transferentziak.  
 Bankuz.  
Banketxea: .....  
Kontu Zenbakia: .....

Sinadura: .....

## ELIZATXO ELKARTEA:



Mus eta tute txapelketetako saridunak Elkarteko atarian

# Elizatxo Elkartek giro ederrean ospatu zuen 34garren urteurrena

Elizatxok 34garren urteurrena ospatu zuen astearte gauetan eta horretarako afari goxoa prestatu zuten bazkide eta gonbidatuentzat: entremesak, kokotxak almejekin, txuleta eta tarta, kafe, kopa eta purruaz jarraituta. Elkartea lepo bete zen eta giro ederra izan zen bertan. Parte hartutako guztiei giltzak eramateko orogarri bana eman zieten, urteurrenako inskripzioarekin.

hirugarren Tellez-Juan; eta laugarren Felix-Javi.

Afari goxoa izan zuten: entremesak, kokotxak saltsa berdean almejekin, txuleta, tarta eta kafe konpletua.

Txapeldunek afari bat irabazi zuten Casino Kursaal-en. Bestalde, sariak jarri zituzten honakoek: Casino Kursaal, Al-tuna Dekorazioak, Mayr Bonbak, Peru Eskabazioak, Etxeberría Anaiak, Montenegro Iturgintza, Joxe Mari Taberna, Rioja Taberna eta Goieko Garbiketa Produktuak. Laguntzaile izan ziren: Berastegi Kafeak, Viguisa, Palet, Gorostegi Anaiak, Nahikor eta Codorniu.

### Tute eta mus txapelketetako sari banaketa

Afari ostean sari banaketak izan ziren. Tutean txapeldun izan ziren Felix eta Javi; bigarren Julian-Niko; hirugarren Miguel-Manolo; eta laugarren Salus-Txesko. Musean berriz, Andoni eta Ricar-ek jaso zuten txapela; bigarren Julian-Niko;

## SUTEA

### Floridan kontainer batek sua hartu eta karrozeria bateko fatxada erre zuen atzo

Udaltzaingoa jakitera eman duenez, atzo arratsaldeko 19:00ak aldera sutea izan zen Florida auzoan. Kontainer batek sua hartu eta Carrocerias Kepa izeneko enpresako fatxada erre zuen. Ez zen kalte pertsonalik izan eta itsura batean kalte materialak ere ez dira oso handiak izan. Sutea itzaltzen Donostiako suhiltzaileak eta Udaltzaingoa izan ziren. Orain Ertzantza ari da sutearen arrazoiak ikertzen.

## IRAGARKI MERKEAK

**Inigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

**Arutz profesionalak** lan bikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15